

2. Boletina

2012ko maiatza

LAN OSASUN BOLETINA

AURKIBIDEA:

- 1. AMIANTOA : KONPENTSAZIO FUNTSA SORTZEKO BEHARRA**
- 2. BILBAINA DE ALQUITRANES, GAIXOTASUN PROFESIONALEN ITURRI**
- 3. PIERBURG-EKO ELAKO DELEGATUAK BORROKAN SEGURTASUN DOKUMENTAZIOAREN ATZETIK**
- 4. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO MAIATZA**

2. Boletina

2012ko maiatza

1. AMIANTOA : KONPENTSAZIO FUNTSA SORTZEKO BEHARRA

2012an dagoeneko 14 pertsona hil dira amiantoak eranginda, nahiz eta inongo estatistiketan agertu ez. Amiantoak guztira EAEn 159 pertsona erahil ditu, eta tamalez gehiago izango direnaren ziurtasun osoa dugu, azken 30 urtetan 25.000 langilek sustantzi toxikoa arnastu dutela jakinda.

Gaur amiantoaren biktimak babesik gabe aurkitzen dira, prosezua juridiko oso zail eta luze baten ostean bi aukera posible ematen dira: sistemak kaltea aitortzen die, gehienetan berandu eta kaltea guztiz pairatu gabe, edo kaltea inoiz ez zaie ordaintzen.

Horregatik ELAn amiantoaren ondorioz kalteak izan dituzten pertsonen dagokien ordaina emateko, ezinbestekoa ulertzen dugu konpentsazio funtsa sortzea, batik bat kaltetunak enpresa desberdinetan lan egin duenean edo lan egindako enpresa hori desagertu egin den kasuetarako. Horrela adierazi zuen ELAk Martxoaren 27an Legebiltzarrean gai honen bueltan antolatutako ponentzian.

Argi dago, auzi honi heltzeko beste gai askotan bezala, borondate politikoa izatea ezinbestekoa dela. Eusko Jaurlaritzak gaia bere gain hartzeko ardura osoa du, orainarte egindakoa ezer gutxi baita. Gaiaren parte hartzen duten eragile ezberdinek, Osalan, Lan Ikuskaritza eta Osasun Sailak egiten dutena baino askoz gehiago egin dezakete horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko zein materialak dituztelako.

Aurrekontu murrizketak, irizpide teknikoetan oinarritutako txosten hutsek edo ikerketarik gabeko jarrerak onartezinak dira. Horrela, argi geratzen da gaiaren orainarte izan duten konpromiso hutsa. Konpromezua tinkoa behar du izan. Ikerketak egin behar dira, txostenek kaltearen eta enpresa jardueraren arteko erlazioa adierazi behar dute eta kaltetunari irtenbiderik egokiena eta

azkarrena eman behar zaio.

Funtsa konponbidearen zati bat moduan ulertu behar da. Enpresa ekarpenekin finantziatuta eta kasuan kasu baliabide publikoekin osatuko dena, gaixotasun profesionala onartuta edota amiantoagatik kaltetuak izan direnei zuzenduko dena, eta honek kitatuko zatiaz beste auzibidean konpontzeko aukera irekia emango duena, kaltetu eta ondorengoan baitan. Beti ere, honek enpresek egin beharreko prebentzioa alde batera utzi gabe.

Beste herrialde batzuetan dagoeneko (Belgika, Frantzia...) horrelako tresnak martxan daude dagoeneko, beraz hemen zergatik ez?. Osalanek haatik zailtasunak baino ez ditu agertzen zentzu honetan, eta eratzekotan Estatu mailako gizarte-konpentsazio funtsaren aldekoa agertu da. Betiko moduan, konfrontatzeko intentziorik ez.

2. BILBAINA DE ALQUITRANES, GAIXOTASUN PROFESIONALEN ITURRI

Bilbaina de alquitranes enpresaren eginbehar nagusia harrikatz-mundruna destilatzean datza, olio mota ezberdinak sortuz eta solidotze prozesua dela medio brea delakoa ondoren lortuz. Gainera, beste azpiproduktu batzuk ere egiten dituzte, olio arinak, naftaleno olio, olio astunak, cresota eta antraceno olio. Minbiziaren aurkako ikerketarako nazioarteko agentziaren esanetan harrikatz -mundruna gizakiarentzat oso kaltegarria da, minbizia eraginez. Creosota ere gaixotasuna geratzeko sustantzi arriskutsuen artean zehazten da.

Asko izan dira enpresa horretan lan egin duten langileak eta lanaren ondorioz gaixotu egin direnak. Minbizi mota ezberdinak jasan dituzte, puxikako, zerebrala, mihikoa, ahokoa... Nahiz eta horietako gaixotasun asko gaixotasun profesionalen zerrendan agertu, mutuek kasuan kasu ez zuten lanaren eta gaixotasunaren arteko zuzeneko harremana onartzen, langilea bere kabuz epaitegietara jo behar zuen lanaren ondoriozko mina zela onartu diezaioten.

Judizializatutako kasu askotan, prozedura luze eta gogor baten ondoren, probatu eta onartu da lana eta gaixotasuna bat zirela, kaltearen arrazoi profesionala zehaztuta. Lehenengo neurri hori irabazita, zerbitzu juridikoetan bigarren pausua eman da, segurtasun neurrien falta salatu eta errekaruaren eskaera egin.

Hori horrela izanda, pasadan martxoaren 21ean azken sententzia onetsi digute. Euskal Autonomi Erkidegoko epaitegiak lehen auzian hartutako erabakia berretsi du. G.I.B. afiliatuak ahoko carcinoma epidermoide bat dauka. Bilbaina de Alquitranes enpresan 1991. urtetik 2010eko otsaila arte, ezintasun iraunkor absolutu bat onartzen dioten arte, lan egin zuen. Hasiera batean

ezintasuna onartzen zuen erresoluzioak arrazoia profesionala baino arrunta zela zioen. Erabakiarekin aurka agertu zen langilea eta lehen auziko epaileak arrazoia zuela ulertu zuen. Hala ere, mutuak sententzia errekurritu zuen, nahiz eta mina gaixotasun profesionalen zerrendan agertu, eta nahiz eta Osalaneko txostenak kausalitate argia ikusi. Mutuaren esanetan, langileri lanean ziharduen bitartean egindako neurketen emaitzak, indizeak, inoiz ez ziren altuegiak izan, beste langile gaixotu batzuk izandako beste minbizi batzuk arruntak izatea eta errekurritu ez izana eta langilea ohiko tabako erretzailea izatea, gaixorik egoteko eta lanarekin zerikusirik ez izateko arrazoi nahikoak dira. Mutuen ohiko jokabide alegia.

Horrelakoak borrokatzea gogorra bada ere, arrazoi gure alde dugulako, jarraitu dezagun salaketaren bidetik

3. PIERBURG-EKO ELAKO DELEGATUAK BORROKAN SEGURTASUN DOKUMENTAZIOAREN ATZETIK

Pierburg enpresako zuzendaritzak ez du segurtasun eta lan osasunaren inguruko dokumentazioa eman nahi prebentzioko delegatuei. Pierburg, Abadiñon kokatua dago eta autoentzako konponenteak egiten ditu. Enpresak argudio ezberdinak plazaratzen ditu, halaber, paper galera izugarria dela, dokumentu horietan datu komertzial eta industrial garrantzitsu asko daudela edota egindako kanpo auditoria baten arabera, helarazitako dokumentazioa nahikoa dela delegatuek beraien funtzioak bete ditzaten.

Enpresak, arazo honentzako irtenbide berezia aurkeztu du: Prebentzioko delegatuek Giza Baliabideen departamentuari baimena eskatu behar diote lan osasun eta segurtasunari buruzko daturen bat ikusi nahi baldin badute. Datu hauek ikusteko ordenagailu bakarria departamentu honetan dago delegatuek ezagutzen ez duten pasahitz batekin gainera.

Honela, prebentzioko delegatuek ordenagailu batean lan osasunari buruzko informazio guztia kontsultatu ahal izateko aukera dute baina ez dute informazio hori paperean edukitzeko baimenik. Arazoa aurrekusirik, enpresari ELA-ko Lan Osasun arloko teknikari baten bisita eskatu zioten baina ezetza jaso zuten.

Elkarrizketarekin bakarrik ezer gutxi lortuko zutela ikusirik, 2011.eko abenduaren 5ean komiteak lan ikuskaritzan, prebentzioko delegatuei lan osasun eta segurtasun dokumentuen entregaren falta salatu zuen. Inspektorearen atzetik ibili ondoren eta lan ikuskaritza beraren irizpide tekniko bati esker, (CT 43-2005) lan ikuskaritzak delegatuei arrazoia eman zien eta enpresak 3 asteren bueltan dokumentazioa delegatuei emateko betekizuna ezarri zion.

Lan Osasun eta Segurtasun Legediak ,31/95 Legeak, bere 36.2 b) artikuluan, prebentzio delegatuen ahalmenen artean honako hau aipatzen du:

“beraien lan funtzioak betetzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa eskuragarri izan, lege honen 22.artikuluaren 4.ataleko mugak kontutan izanda, eta bereziki, lege honen 18 eta 23. artikulua aurrikusita”.

Argi gelditzen da beraz, prebentzioko delegatuek, langileen ordezkari moduan beraien lana aurrera eramateko, ebaluaketa, plan eta programa ezberdinen jarraipena egiteko, guztiz beharrezkoa dutela segurtasun dokumentazioa eskuragarri izatea.

Prozesu guzti honetan ELA-ko delegatuak ESK-ko delegatuaren laguntza izan dute soilik, UGT-ko delegatuak berriz ez dute jaramonik egin. Baina, bai berezia, azken egun hauetan, UGT-ko delegatuek ELA-ko delegatuei emandako dokumentazio guztiaren kopia bat exijitu diete. Gora talde-lana eta langile elkertasuna!

4. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO MAIATZA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	8
GIPUZKOA	5
ARABA	3
NAFARROA	2
GUZTIRA	18